

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ■ MUSIKA ESKOLA

### Teklatu ikasleek, kontzertua gaur

Gaur eskainiko dute kontzertua, Hernani Musika Eskolako teklatu ikasleek; 19:00etan, Biterin. ||

## ■ GIBELALDE

### Murala margotzeko zita, Auzo Plazan

Auzolanean, mural bat margotzeko zita jarri du Gibelalde, Lizeagako auzo elkarteak. Larunbatean margotuko dute, 09:00etan hasita Auzo Plazan; eta parte hartu nahi duenak, bihar eman behar du izena, 19:30etan auzo elkartearen lokalean (Larramendi 11). ||

## ■ UDAL EUSKALTEGIA

### Azkeneko Kafe Tertulia, gaur

Gaur egingo dute, ikasturteko azkeneko Kafe Tertulia: Gunea garagardotegian, 17:00etan. ||

## ■ HERNANI ERABAKI

### Sorgintxulon gaur; aurkezpena bihar

Gaur egingo dute, Hernani Erabaki prozesuko azkeneko auzoz auzoko bilera: Sorgintxulon, 19:00etan. Bihar, berriz, proposamenak aurkeztuko dituzte, 19:00etan udaletxean. ||

## ■ UDALA

### Garcia Goldaratz kalea itxita, gaur

Itxita egongo da gaur, goizeko 08:00etatik aurrera, Garcia Goldaratz kalea; eta libre utzi beharko dira aparkalekuak. Izan ere, asfaltatze lanak egingo dituzte, aparkalekuetan. ||

## ■ OMENALDIA

### Eduardo Benitez gogoan, ekitaldia

Gaur dira bederatzi urte, tiroz hil zutela Eduardo Edu Benitez Tamayo, Urbieta kalean. Horregatik, berari omenaldia egiteko, eta gertatutakoa ahaztuko ez dutela erakusteko, ekitaldia antolatu dute larunbatean, 16:30etan Akarregiko zerbeza fabrikari, haren koadrilako eta dardoetako lagunek. ||

## ■ PORTU AUZOA

# Udaberrirako plan hirukoitza, ostiraletik

Enologia ikastaroa egingo dute etzi, 19:30etan, Portu auzoko udaberriko ekintza kulturaleri hasiera emateko; Pedro Mari tabernan apuntatu behar da. Hilaren 26an, Bohedal bodegara joango dira.

AURTEN ere antolatu dute egitarau berezia, Portu auzoan, udaberrirako. Hiru ekintzarekin osatutako kultur programa prestatu dute, eta etzi, eman go diote hasiera, ostiralarekin.

Aurrenekoa, auzoan bertan egingo dute: cavaren enologia ikastaroa izango da, Guillermo Castaños enologoaren eskutik, Portuko Auzo Elkartearen lokalean. Ostiralean izango da, arratsaldeko 19:30etan hasita; baina bertan egon eta parte hartu nahi duenak, orain dauka izena eman beharra. Izan ere, plaza kopurua mugatua da, eta Pedro Mari tabernan apuntatu behar da.



Joan den urtean, garagardo desberdinekin egin zuten enologia ikastaroa.

### Bohedal bodegara bisita, maiatzaren 26an

Udaberriko programaren bigarren zita, berriz, datorren astean jarri dute. Maiatzaren 26an izango da, larunbatetik; eta edarien bueltan jarrai-

tuko dute, baina cavak beharrez, ardoak hartuko du protagonismoa. Bohedal bodegara joango dira, bisitan; Errioxako Cuzcurrita del Río Tirón herrira, hain justu.

Eta klasiko batekin bukatuko dute, prestatu duten egitaraua. Izarrei begira jarriko dira ekainaren lean, ostiralarekin: behaketa astronomikoa egingo dute, 21:00etan hasita,

Aranzadiko kideen eskutik.

Eguraldiaren menpe egongo da ekintza hori, hala ere: eguraldi txarra eginez gero bertan behera geldituko da behaketa astronomikoa. ||

## ■ OIALUME 75 URTE

# Oialumeren 75 urteak ospatzeko festarako, lau sarrera zozketan Kronikalarien artean

Kontzertu berezia antolatu dute Oialumen, maiatzaren 26rako: Eider eta Lierni, Anje Duhalde eta Gozategi. Sarrerak salgai daude, eta Doberak eta Kronikak, bi sarrera bikoitz zozketatuko dituzte.

75 urte beteko ditu Oialume biltokiak, eta urteurren borobila ospatzeko, kontzertu berezia antolatu dute, maiatzaren 26an: Eider eta Lierni trikitilariak, Anje Duhaldek eta Gozategi taldeak joko dute, gaueko 22:00etan hasita.

Eta sarrerak, dagoeneko salgai daude, 12 euroan: Hernanin, Kixkal tabernan; eta online ere bai, [musikazale.com](http://musikazale.com) webgunean.

Baina horrez gain, Dobera Euskara Elkarteak eta Kronikak ere zozketatuko dituzte, bi

sarrera bikoitz, Kronikalarien artean. Maiatzaren 22an izango da zozketa, orduan Kronikalari direnen artean; eta beraz, nahi duenak egun horretara arte dauka aukera, Kronikari lagundu, eta bide batez, zozketan sartzeko.

Kronikalari egiteko, emaila idatzi behar da [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus) helbidera; edo telefonoz deitu, 943 33 08 99 zenbakira. 25 euro dira, urtean.

Gogoratu, Dobera-Kronikako bazkide laguntzaileak, dagoeneko badirela Kronikalari. ||

**Funeraria VASCONGADA**  
Zure eskura  
24h-ko zerbitzua  
943 376 980  
Orkolaga, 2-4  
943 55 79 01  
HERNANI  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**TXEMA TABERNA**  
AERORUMBA  
ETA OSASUNA  
OSTIRALEAN  
00:00etatik AURRERA  
Genbidatuta gaurdute!  
Izpiua  
Kalea,  
21 behea.  
Hernani

**CATALANA OCCIDENTE**  
Aseguruak  
Atzeta 30 -  
20120 Hernani  
Telf - 943-332440  
Fax - 943-556602  
-Bautista-Blurrarena- Etxegolen

**gse**  
Asesoreak  
Aholkularitza eta  
tramitazio  
zerbitzua  
Gudarien plaza, 13  
Telfnoa: 943 55 02 54  
Faxa: 943 33 58 01  
[gse@gseasesores.net](mailto:gse@gseasesores.net)

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ / **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauz:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

**EGURALDIA** **GAUR** Zerua lainotuta egongo da goizean, eta baliteke euria egitea ere. Gero, arratsalderako, ostarteak zabalduko dira. Haizea iparraldetik sartuko da. Temperatura, koxka bat gora: **Min.10° / Max.16°**

**BIHAR** Berdintsu egongo da bihar. Zeruan, lainoak eta ostarteak tartekatuko dira, egun osoan zehar. Iparraldeko haizea ibiliko da, eta temperatura antzekoa izango da: **Min.10° / Max.17°**

(euskaime)

## ■ BETERRI KM 0



Proiektuan parte hartu duten eragileak, atzo Plazan egin zuten aurkezpenean.

## Tokiko produktuak saretzea du helburu 'Beterrri Km 0' proiektuak

Beterrri-Buruntzako sei Udalen proiektua da, eta bertako produktuak erabiltzen dituzten saltokiak 'Beterrri Km 0' zigiluarekin identifikatuko dira.

BETERRI-Buruntzako Udalek, *Beterrri Km 0* proiektua martxan jarri berri dute, nekazal ekoizpena kontsumitzaileen esku jartzeko helburuarekin. Horretarako, janari denda, jantoki publiko zein taberna eta jatetxeetan bertako produktua saltzea erraztuko da. Leku hauek, *Beterrri Km 0* zigiluarekin bereizi eta identifikatuko dira, kontsumitzaileak

bertako produktua modu erraz batean eskuratu ahal izan dezan.

Hernaniko Plazako arkupe aurrean egin zuten aurkezpena atzo, eta bertan egon ziren Jon Zulueta, Beterrri-Buruntzako Udalen ordezkari bezala; Andoni Egia, Hernaniko Tokiko Garapenerako Agentea; Oier Iurramendi, Karabeleko ekoizlea; eta Juan Cruz Alberdi Behe-

mendiren izenean. Beterrri-Buruntzako ekoizleen sarea osatu eta tokiko produktuak sustatzea du helburu, hiru urte bete dituen proiektuak. «Herri, instituzio, merkataria, lehen sektoreko ekoizleak elkartzen dituen sarea bultzatzea du helburu», esan zuen Iurramendik. «Nekazariak sortzea ere bada beste lanetako bat», nabarmendu zuen Alberdik. ■

## ■ ESKUBALOAIA



80ko hamarkadan, Euskal Selektzioan aritutako hainbat jokalarik. Argazki albuma ikusgai: [www.kronika.eus](http://www.kronika.eus).

## Omenaldia Hernanin, 80ko hamarkadako Euskal Selektzioari

30 urte bete ditu eskubaloiko Euskal Selektzioak, eta horregatik, ospakizun berezia egin zuten larunbatean, Hernaniko kiroldegian. Bertan, omenaldia egin zieten, 80ko hamarkadaren bukaeran selektzioan aritu ziren jokalarik, entrenatzaile edota laguntzailei: «garai hartan eskubaloiak indar handia izan zuen Hernanin, eta selektzioan aritu ziren Hernani Eskubaloi Taldeko jokalarik ugari», azaldu dute. Omenaldiarekin batera, partidu polita jokatu zuten Euskal Selektzioko beterranoek, Ereintza konbinatuaren kontra; 14-20 nagusitu ziren gazteenak, beraien fisikoa nabarmenduz, baina detaile tekniko politak erakutsi zituzten beterranoek, «neskek bereziki, albotik jaurtiketa azkar eta trebeekin sartutako hiru edo lau golekin». Gainerakoan, giro ederra izan zen kiroldegian, jokalarik eta ikusleen artean: «Hernani Eskubaloi Taldeko neska-mutiek, badute nora begiratu erreferente bikainak aurkitzeko!», nabarmendu dute. ■

## ■ AMHER



Gaziak bakarrik ez, gozoak ere dastatzeko aukera izan zen, jaialdian.

## «Eskerrik asko, jaialdi gastronomikoa egiten lagundu zeniguteno»

Modu batera edo bestera lagundu zutenei, esker ona adierazi nahi izan die Amher elkarteak.

NAZIOARTEKO jaialdi gastronomikoa antolatu zuen igandean, Amher elkarteak, Atsegindegin. Eta ohar baten bitartez, esker ona erakutsi nahi izan die, jaialdia antolatzen lagundu dieten guztiei, modu batera edo bestera. «Eskerrak eman nahi dizkiegu, jaialdi gastronomikoa gauzatzen lagundu zeniguteno: hogeit hurraldetako lagunei, mahaiak

antolatu eta jakiak prestatzeagatik; bolondres eta laguntzaileei; Hernaniko Eroski City, Eroski Center eta Pak Eusko Doner Kebabi, edariak emateagatik; Hernaniko Kronikari eta Diario Vascorei, deia zabalteagatik; Biteriko arduraduneri laguntzagatik; Udalarik azpiegituran laguntzeagatik; eta Santa Barbara elkarteari, haurren sukalde tailerra uzteagatik. ■

## ■ EH BILDU

### Arnaldo Otegirekin solasaldia, bihar

Apirilaren 26an zen etortzekoa Hernanira, Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusia. Baina azken orduan, bertan behera geratu zen, «Iruñako San Ferminetako bortxaketaren epaiaren bueltan, mugimendu feministak antolatutako ekintzetan parte hartzeko». Hori horrela, biharko jarri dute data berria, eta 19:00etan egongo da Otegi, Biterin, solasaldia egiteko. Itzulpen zerbitzua izango da. Bestalde, larunbatean ekitaldi jendetsua antolatu du Ezker Abertzaileak, 17:30etan Bilboko Miribillan, ETAK iragarritako amaieraren bueltan. Bertara joateko, autobusak antolatu dituzte Hernanitik, eta izena emateko zerrenda, Garin tabernan dago. ■

## ■ ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA

### Elkarretaratzea bihar, EiT Bren egoitzan

Erraustegiaren inguruko eztabaida tekniko eta publikoaren alde, sinadura bilketa jarri zuen martxan, Erraustetaren Aurkako Mugimenduak. Eta 9.500 sinadura baino gehiago bildu ondoren, bihar emango diote bukaera, kanpainari, elkarretaratze batekin: Donostia-ko EiT Bren egoitzaren aurrean elkartuko dira, Miramonen, arratsaldeko 18:00etan. Bertan entregatuko dituzte sinadurak, eta aldarrikatuko dute eztabaidaren beharra. ■

## IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)